

ELUR MALUTA

Banoa zeruko geruzetan kulunkatzen,
firin faran,
neguko hotzak besoak dizkit hedatzen.
Teilatuen gainetik dut herria ikuskatzen.
Haize bolada batek zure leihora nau bideratzen,
eskua duzu luzatzen,
emeki berotasunera ari naiz amiltzen.
Iratze hormatuaren antza nuen
eta zure hatzetan izar gardenean naiz eraldatzen.
Ezpainetara nauzu eramaten, irri egin,
dastatu eta hasi naiz berasten.
Zure ahoan naiz urtzen,
euskara duzu solasten,
elur zena ur duzu deitzen,
zentzuak zaizkit goxotzen.
Lehen, parekorik ez zuen lore iragankor nintzen.
Orain zure mintzairan lurrundurik naiz bizitzen,
denen ahotan ikusi nahi dut euskara loratzen.

LUAR